BASQUE CULTURE.EUS

EUSKADI BASQUE COUNTRY



# 2019 SCOTLAND GOES BASQUE

PRENTSA DOSIERRA

DOSSIER DE PRENSA

URTARRILA - URRIA / ENERO - OCTUBRE

# 2019 SCOTLAND GOES BASQUE


ESKOZIA, EUSKAL KULTURAREN ERAKUSLEIHO 4

ESCOCIA, ESCAPARATE PARA LA CULTURA VASCA 6

CELTIC CONNECTIONS 8

BASQUE SPRING: FOCUS ON BASQUE COUNTRY 12

EDINBURGH INTERNATIONAL FILM FESTIVAL 15

EDINBURGH FESTIVAL FRINGE 16

EDINBURGH INTERNATIONAL BOOK FESTIVAL 22

EUROPA TRANSIT 24

KONGRESUA / CONGRESO 28

# ESKOZIA, EUSKAL KULTURAREN ERAKUSLEIHO

# SARRERA / INTRODUCCIÓN



Oreka TX

Eskozia lehentasunezko lurraldea da euskal kultura ezagutzera emateko. Kultur nortasun indartsu eta aberatsa du, eta Euskadirekin partekatzen du bere erroekiko harrotasuna eta nortasun hori landu eta munduan ezagutzera emateko grina. Eskoziako kultur bizitza aberats eta dinamikoa urtean zehar antolatzen dituzten nazioarteko musika, zine, dantza edo literatura jaialdietan islatzen da. Horregatik, Eskozia ezinbesteko jomuga da, halaber, kultur mailako elkartrukea eta elkarrizketa sustatzeko.

Horrela sortzen da **#ScotlandGoesBasque**, kideak diren Eskozia eta Euskal Herriaren arteko loturak estutzeko. Euskal eta eskoziar sortzaileen arteko lankidetza oinarri hartuta, euskal erakundeen laguntzaz Etxepare Euskal Institutuak sortutako proiektu horren helburu nagusia da bi herrialdeetako artisten artean, kultur eragileen artean nahiz ekitaldien artean zubiak eraikitzea eta baita kulturaren, arteen eta hizkuntzaren bidez lokarriak sortzea ere.

Eskoziak toki nabarmena du Euskadi-Basque Country 2020 Nazioartekotzeko Estrategiaren baitan. Estrategia global horren testuinguruan kokatzen da, hain zuzen ere, #ScotlandGoesBasque, askotariko diziplinak biltzen dituen programa.

Literaturatik hasi eta arte eszenikoetaraino, musika eta zinea alboratu gabe, #ScotlandGoesBasque Eskoziako euskal kultur zikloa joan zen urtarrilaren 24an hasi zen, Celtic Connections munduko musiken nazioarteko jaialdian, eta datozen hilabeteotan jarraituko du: hainbat euskal artista eta kultur adierazpen izango dira Edinburgh International Book Festival, Edinburgh International Film Festival eta Edinburgh Festival Fringe jaialdietan eta ekitaldi akademikoak burutuko dira Glasgow eta Edinburgoko unibertsitateetan. Foro, emanaldi, topaketa eta proiekzio horiek ahalbidetuko dute eskoziar publikoak -sorkuntza, kultura eta alor akademikoko profesionalak barne- ezagut dezan euskal kultura eta sorkuntza garaikidearen aniztasun eta aberastasuna eta, aldi berean, arlo horietako artista zein profesionalekin ideiak trukatzeko topagunea sortzea.

Etxepare Euskal Institutuaren xede nagusia da euskal kultura, arteak eta euskara mundu osoan ezagutzera ematea. Bestela esanda, euskal kulturaren enbaxadorea da, euskara eta diziplina edo adierazpen artistiko orotan dihardten euskal artisten lana sustatzen du. Gainera, Etxepare Euskal Institutuak elkarrizketa abiatu nahi du beste kulturekin, hizketa berriak sortu eta elkartrukea indartu, kultur diplomazia bultzatuz herrialde ezberdinen lankidetzarako lan tresna gisa.

**Informazio gehiago:**
**www.etxepare.eus**

# ESCOCIA, ESCAPARATE PARA LA CULTURA VASCA

# SARRERA / INTRODUCCIÓN



*Huntza*

Escocia es un territorio prioritario para dar a conocer la cultura vasca. Con una identidad fuerte y rica, comparte con el País Vasco el orgullo por sus raíces y la pasión por cultivar y mostrar al mundo esa identidad. Además, su vida cultural, rica y efervescente, apoyada en un número importante de festivales internacionales con una larga tradición en torno a la música, el cine, la danza o la literatura, hace también de Escocia un destino imprescindible para fomentar el intercambio y la conversación cultural.

De esta forma nace **#ScotlandGoesBasque**, para ahondar en los lazos entre Escocia y el País Vasco, dos territorios homólogos, tomando como base la colaboración entre creadores/as vascos/as y escoceses/as. Un proyecto cuyo principal objetivo es tender puentes entre artistas, agentes culturales y eventos de ambos territorios y que, apoyado por las instituciones vascas y elaborado por Etxepare Euskal Institutua, busca crear vínculos a través de la cultura, las artes y la lengua.

Escocia ocupa un lugar preeminente en la Estrategia de Internacionalización Euskadi-Basque Country 2020, estrategia global en la que se enmarca el programa multidisciplinar #ScotlandGoesBasque.

Desde la literatura a las artes escénicas, pasando por la música y el cine, el ciclo cultural vasco en Escocia, #ScotlandGoesBasque, comenzó el pasado 24 de enero en el festival internacional de músicas del mundo Celtic Connections y continuará durante los próximos meses con la participación de artistas vascos/as y manifestaciones artísticas en el Edinburgh International Book Festival, el Edinburgh International Film Festival y Edinburgh Festival Fringe, así como eventos académicos en las universidades de Glasgow y Edimburgo. Foros, actuaciones, encuentros y proyecciones que permitirán al público escocés, incluidos profesionales de los sectores creativo, cultural y académico, descubrir la variedad y la riqueza de la cultura y la creación contemporáneas vascas y crear un espacio de intercambio de ideas con artistas y profesionales del sector.

Etxepare Euskal Institutua es una institución pública cuya misión principal es la de dar a conocer internacionalmente la cultura, las artes y la lengua vasca. En otras palabras, es el embajador de la cultura vasca, promoviendo el euskera y los artistas vascos/as que trabajan en todas las disciplinas y expresiones culturales. Además, Etxepare Euskal Institutua busca establecer un diálogo, generar nuevas conversaciones e intensificar el intercambio con otras culturas fomentando la diplomacia cultural como herramienta de colaboración entre diferentes.

**Más información en:**
**www.etxepare.eus**

# CELTIC CONNEC-TIONS

Celtic Connections Glasgow hirian neguan egiten den folk, roots eta world music jaialdia da. Batez ere, musika zeltiarra munduko gainontzeko herri-musikekin lotzea du helburu jaialdi honek. Celtic Connections bere elkarlan izaerarengatik da esanguratsua munduan zehar; izan ere, jatorri ezberdinetako musikariak uztartzen dituen ikuskizunak antolatzen ditu, bizian behin ikus daitezkeen kultura arteko emanaldi paregabeak eskainiz. Aurtengoan, mundu osoko 2.000tik gora musikari bertaratuko dira eta 18 egunez kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak, tailerrak eta bestelako kultur jarduerak antolatuko dira. Horrez gain, aurten Celtic Connections jaialdiak arreta berezia jarriko dio Euskal Herriko musikari: folka, roots musika eta world musik delakoa jorratzen dituzten hainbat euskal artista eta talde joango dira Eskoziako hirira.

Celtic Connections es un festival de música folk, roots y world music que se celebra en Glasgow todos los inviernos. Su objetivo es, sobre todo, establecer conexiones entre la música celta (típica de culturas como la escocesa) y la música popular de diversos rincones del mundo. Celtic Connections es conocido por motivar la fusión entre músicas de diverso origen, pues organiza actuaciones conjuntas con músicos de diferentes procedencias, creando unos espectáculos interculturales únicos. Esta vez acudirán al festival más de 2000 músicos de todo el mundo, y la ciudad se llenará de conciertos, charlas, exposiciones, talleres y todo tipo actividades culturales durante esos 18 días. Además, este año Celtic Connections prestará especial atención a la música vasca, y Glasgow recibirá la visita de varios grupos vascos destacados en el panorama del folk, roots y world music.




*Argazkia/Foto: Celtic Connections*

Glasgow /
**urtarrilak 17 de enero / otsailak 3 de febrero**



*Argazkia/Foto: Korrontzi*

# KORRONTZI

Korrontzi, 2004. urtean Agus Barandiaran trikitilariak sortutako folk musika taldea da. Bere helburua da, Euskal Herriko antzinako doinu tradizionalei ikuspuntu moderno eta garaikideago bat ematea, beti ere trikitixan oinarrituz, nahiz eta harekin batera txalaparta edota alboka bezalako beste instrumentu tradizional batzuk ere erabiltzen dituen. Aipatutako soinu moderno hori lortzeko, kantuak mandolina, baxu elektrikoa, kontrabaxua edota perkusioa bezalako instrumentuez laguntzen ditu taldeak. Urte hauetan zehar, Korrontzik bere kultura, hizkuntza, dantza eta musika munduko txoko ezberdinetara eraman ditu, jaialdi handietan joz, AEBetatik hasi, Cabo Verdetik igaro eta Txekiar Errepublikaraino. Horrez gain, sari eta aipamen ugari ere jaso ditu mundu mailan, besteak beste, "WOMEX Official Selection (2014)" edota "Europako Bandarik Onena, Eurofolk (2009)". Taldeak jada zortzi diska ditu besapean.

## Old Fruitmarket /

**urtarrilak 24 de enero / 20:00**

Korrontzi es un grupo folk que vio la luz en el año 2004, de la mano del trikitilari (instrumentista de la trikitixa, acordeón diatónico vasco) Agus Barandiaran. Este proyecto pretendía dotar a la música tradicional vasca de una visión más contemporánea y moderna, siempre basándose en la trikitixa, aunque con ayuda de otros instrumentos vascos tradicionales como la txalaparta (instrumento de percusión hecha con tablas de madera y tocada con palos) o la alboka (instrumento de viento tipo clarinete doble). A ello, añaden instrumentos como el bajo eléctrico, la mandolina, el contrabajo y la percusión para darle ese sonido moderno mencionado previamente. Durante estos años, Korrontzi ha llevado la raíz y riqueza de nuestro idioma, música y danza a diferentes rincones del planeta, participando en varios festivales internacionales, desde Estados Unidos hasta la República Checa, pasando por Cabo Verde. El grupo también ha recibido varios premios y nominaciones, entre otros, "WOMEX Official Selection (2014)" o "La mejor banda de Europa, Eurofolk (2009)". Korrontzi ha editado ya ocho álbumes.

# KALAKAN

Mundu mailan asko ibilia da Xan Errotabehere, Jamixel Bereau eta Pierre Sanglak osatzen duten Kalakan taldea. Ipar Euskal Herrian jaioa, perkusioa eta ahotsa jorratzen dituen talde honek, besteak beste, Madonnarekin batera egin zuen munduko bira 2012. urtean, eta horrek ospe handia eman zion. Euskal musika tradizionalaren erroak hartu eta, konposizioak ia perkusio eta ahots soilera biluztuz, kutsu garaikidea ematen die hirukote honek bere kantuei. Euren kontzertuak soiltasun dotorez jantziak dira, protagonismo osoa hirukoteari eta euren instrumentuei emanez, modu intimista batean. 2018. urteko Musika Bulegoa Sarietan, gainera, Etxepare Euskal Institutua Musika Saria jaso zuen Kalakanek, munduan zehar euskal kultura eta tradizioa zabaltzen egindako lanarengatik.

El trío formado por Xan Errotabehere, Jamixel Bereau y Pierre Sangla ha recorrido gran parte del mundo. Nacido en el País Vasco Norte, este grupo que trabaja sobre todo voces y percusión, realizó una gira con Madonna en 2012, lo cual contribuyó significativamente a que se dieran a conocer internacionalmente. Kalakan adopta las raíces de la música tradicional vasca y desnuda sus composiciones a simple voz y percusión, otorgando a su vez un toque más contemporáneo a sus canciones. Sus conciertos son sobrios y elegantes, en los que se da total protagonismo al trío y sus instrumentos, de manera intimista, pero a su vez con momentos llenos de emoción. Además, en los premios Musika Bulegoa del año 2018, Kalakan recibió el premio Etxepare Euskal Institutua Musika Saria, como reconocimiento por el trabajo realizado en la difusión de la música y la cultura vasca en todo el mundo.

## Glasgow Royal Concert Hall, Strathclyde Suite /

**urtarrilak 24 de enero / 20:00**



*Argazkia/Foto: Kalakan*

# CELTIC CONNEC-TIONS

## HUNTZA



Argazkia/Foto: Huntza

Queen Margaret Union /

**urtarrilak 25 de enero / 19:30**

Azken urteotan euskal musikak eman duen fenomeno arrakastatsuenetakoa da Huntza. Talde hau 2014. urtean sortu zen Bilbon, baina 2016. urtean plazaratutako *Aldapan Gora* kantuak egin zuen benetan ezagun: abestiaren Youtubeko bideoak milioika bisita izan zituen oso denbora gutxian, eta egun euskal abestirik ikusiena da plataforma horretan. Ordutik aurrera, Huntzak dozenaka kontzertu eman ditu mundu osoan zehar, hala nola Japonian, Argentinan edota Uruguain. Euren estiloak trikitixa funts duten pop-rock doinu alaiak ditu oinarri, folk kutsua ematen dion bibolin batez lagundurik. Horrez gain, seikoteak kontzertuetan sortzen duen festa giroa nabarmentzekoa da, eta horrek estatu eta mundu mailako jaialdi askotara eraman ditu. Bigarren diskoa atera berri dute, *Xilema* deiturikoa, eta hura aurkeztera doaz Glasgowra.

Huntza es uno de los fenómenos musicales más exitosos de los últimos años en el País Vasco. El grupo se formó en Bilbao en el año 2014, pero no fue hasta el 2016 cuando se hicieron realmente conocidos, gracias al éxito de su canción *Aldapan Gora*: el videoclip del tema obtuvo más de un millón de visitas en Youtube en muy poco tiempo, y hoy en día es la canción vasca con más visualizaciones de la historia en dicha plataforma. Dese entonces, Huntza ha ofrecido decenas de conciertos por todo el mundo, viajando a lugares como Japón, Argentina o Uruguay. Su estilo mezcla sonidos pop-rock con la esencia de la trikitixa, acompañado de un violín que le da el toque folk al conjunto. Destaca el ambiente festivo y alegre que el sexteto genera en sus conciertos, lo cual los ha llevado a actuar en numerosos festivales de todo el mundo. Acaban de sacar su segundo disco, *Xilema*, y esa será su carta de presentación en Glasgow.

## TOSTA BANDA



Argazkia/Foto: Tosta Banda

Glasgow Royal Concert Hall /

**urtarrilak 25 de enero / 19:30**

Talde honen osaera eta musika bitxia bezain bikaina da. Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren testuinguruan du iturburua, eta hizkuntza gutxitua duten Europako Atlantiar kostako zazpi lurraldetako kideak biltzen ditu: Eskozia, Galizia, Gales, Frisia, Irlanda, Kornualles eta Euskal Herria. Oreka Tx taldearen sortzaile Igor Otxoa txalapartaria, eta Mixel Ducau musikaria dira taldearen zuzendariak. “Tosta” hitza, hain zuzen, txalupen bankuei deitzeko erabiltzen da talde hau osatzen duten kulturetako zenbait hizkuntza gutxituetan, eta hitz hori partekatzen duten bezala, talde honek kultura bakoitzaren musika eta abesti tradizionalak partekatzeko asmoa du, bakoitzaren hizkuntza, doinuak eta instrumentuak abesti horien mesederako erabiliz. Ideia honen originaltasunak, 2018. urtean Musika Bulegoa Saria irabaztera eraman zuen Tosta Banda. Nazionalitate anitzeko taldea izaki, nazioartean dezente ibiliak dira, batez ere kide bakoitza jatorri duen herrialdeetan. Glasgowko Royal Concert Hall aretoan ere, zapore anitzeko esperientzia bat eskainiko dute oraingoan.

Tanto la composición como el estilo musical de esta banda son excepcionales. Tosta Banda vio la luz dentro del programa de la Capitalidad Cultural Europea Donostia / San Sebastián 2016, y el proyecto reúne a miembros de siete territorios con lenguas minoritarias pertenecientes a la costa atlántica: Escocia, Gales, Irlanda, Frisia, Galicia, Cornualles y País Vasco. El txalapartari Igor Otxoa, antiguo miembro de Oreka Tx, y el músico Mixel Ducau son los directores de este particular proyecto. La palabra “tosta” se utiliza para denominar a los bancos de los botes en muchas de estas lenguas minoritarias, y de la misma manera en la que comparten este término, los miembros de Tosta Banda tienen como objetivo compartir entre ellos la música y canciones tradicionales de cada territorio. Mediante el uso de instrumentos y sonidos propios de cada cultura, crean canciones con un sabor multicultural interesante. La originalidad de esta idea los llevó a ganar un premio Musika Bulegoa en el año 2018. La banda ha visitado muchos rincones del planeta, especialmente los sitios a los que pertenece cada miembro. Glasgow es su siguiente destino, y en él mostrarán al público su variado y rico repertorio.

# OREKA TX

Glasgow Royal Concert Hall, New Auditorium /

**Urtarrilak 26 de enero / 19:30**

Oreka Tx ibilbide luzeko taldea da. Txalaparta oinarri duen proiektu hau 1997. urtean sortu zuten Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Igor Otxoak, eta ordudanik, urteak daramatzate euskal instrumentu antzinakoenetariko honen aukera guztiak aztertzen eta zabaltzen. Horretarako, material ezberdinak (egurra, harria, banbua) edota musika tradizio ezberdinetako erritmo bereziak erabili izan dituzte. Gaur egun, Mikel Ugartek Igor Otxoa ordezkatu du txalapartan, eta bikoteak ematen dituen ikuskizunetan Mixel Ducau, Iñigo Eguia, Juan Jose Ochandorena eta Amaiur Cajaraville musikariek osatzen dute taldea. Energiaz beteriko emanaldiak eskaintzen dituzte, gure arbasoen instrumentuaren mistikotasunari zukua ateraz. Hainbat artista ezagunekin kolaborazioak ere egin dituzte, hala nola Kepa Junkera edota Heviarekin. Nazioarteko txoko ezberdinetan jo dute jada, eta hiru disko dituzte merkatuan.

Oreka Tx es un grupo con una larga trayectoria. Este proyecto basado en la txalaparta nació en el año 1997 de la mano de Harkaitz Martínez de San Vicente e Igor Otxoa y, desde entonces, el dúo ha estado explorando y ampliando las diferentes posibilidades que este instrumento milenario ofrece. Para ello, utilizan varios materiales con diferente sonoridad (madera, piedra, bambú) o ritmos de diversas tradiciones musicales, entre otras cosas. A día de hoy, Igor Otxoa ha sido sustituido en las tablas por Mikel Ugarte, y el dúo sale a escena acompañado por músicos como Mixel Ducau, Iñigo Eguia, Juan José Ochandorena y Amaiur Cajaraville. Oreka Tx ofrece espectáculos llenos de energía, donde sacan jugo a la misticidad de este instrumento ancestral. Han colaborado con varios artistas conocidos, tales como Kepa Junkera o Hevia. El grupo ha viajado a diversos rincones del mundo, y tienen tres discos en el mercado.



*Argazkia/Foto: Oreka Tx*

# TOPAKETA PROFESIONALAK

# ENCUENTROS PROFESIONALES

**Urtarrilak 24 - 25 de enero**

Celtic Connections jaialdiaren testuinguruan, musika emanaldiak ez ezik, ideien elkartrukerako eta harreman komertzialetarako abagunea ere izango da. Euskal Herritik joandako musikaren sektoreko profesionalek, Eskoziako jaialdietako antolatzaile eta bestelako sektoreko profesionalekin bi eguneko topaketa izango dute, bi lurraldeetako kultur industrien arteko lankidetza eta zabalkundea sustatzeko. Euskal musika industriako 15 bat ordezkari eta erakunde izango dira bertan.

En el festival Celtic Connections, además de conciertos, habrá lugar para el intercambio de ideas y para las relaciones comerciales. Los días 24 y 25 de enero se celebrará un encuentro entre profesionales del sector musical del País Vasco y organizadores de festivales y otros profesionales del sector musical de Escocia con el fin de promover la colaboración y la difusión de las industrias culturales de los dos territorios. A él acudirán cerca de 15 profesionales y representantes de la industria musical vasca, así como entidades públicas vinculadas al sector.

# BASQUE SPRING: FOCUS ON BASQUE COUNTRY

## CinemaAttic.

**Edinburgo, Glasgow, Londres, Leeds, Manchester.**
**Apirilaren 25etik maiatzaren 23ra.**

**Basque Spring: Focus on Basque Country** (Euskal udaberria: fokua Euskal Herrian) atzerabegirakoaren baitan, klasikoak nahiz egungo piezak proiektatuko dituzte maila goreneko zine historikoetan eta arte guneetan, esaterako Glasgow Film Theatre, Edinburgoko Lauriston Hall edo Glasgowko Centre for Contemporary Arts. Gainera, Erresuma Batuko beste hainbat hirietara ere helduko da: Leeds, Manchester eta Londresen ere izango dira emanaldiak.

CinemaAttic plataformak Etxepare Euskal Institutuaren laguntzaz antolatutako atzerabegirakoak 70ko hamarkadatik gaurdaino egindako dozena batetik gora film biltzen ditu. Askotarikoak dira, dokumentalak edo animazio esperimentalezko piezak barne. Bilduma horrek euskal kulturaren erretratu dimentsio aniztuna agertzen du, berezko hizkuntza, tradizio eta ohiturekin.

## CinemaAttic.

**Edimburgo, Glasgow, Londres, Leeds, Manchester.**
**Del 25 de abril al 23 de mayo.**

La retrospectiva **Basque Spring: Focus on Basque Country** (“Primavera vasca: foco en el País Vasco) proyectará piezas tanto clásicas como actuales en cines históricos de primer nivel y centros de arte como el Glasgow Film Theatre, Lauriston Hall de Edimburgo o el Centre for Contemporary Arts de Glasgow. También viajará a otras partes de Reino Unido como Leeds, Manchester y Londres.

La restrospectiva, organizada por la plataforma CinemaAttic con el apoyo del Etxepare Euskal Institutua, presenta más de una docena de películas desde los años 70 hasta la actualidad, que van desde documentales hasta películas experimentales animadas. Juntos ofrecen un retrato multidimensional de la cultura vasca, con su propio idioma, tradición y costumbres

No es la primera vez que el cine vasco se exhibe en esta plataforma que da a conocer el cine ibérico y latinoamericano en Escocia y, en general el Reino Unido, con el objetivo de acercar cineastas emergentes al público general y a organizadores culturales británicos.



Lehenago ere eskaini du euskal zinea Iberiar Penintsulako eta Latinoamerikako zinea Eskozian eta, orokorrean, Erresuma Batuan ezagutzera ematen duen plataforma horrek. CinemaAtticen helburua da goranzko bidean doazen zinemagileen lana publiko orokorrari eta britainiar kultur antolatzaileei helaraztea.

2018an hainbat euskal film eskaini zituzten Eskoziako aretoetan. Edizio honetan bederatzi film luze proiektatuko dituzte, horien artean Montxo Armendarizen ***Tasio*** eta ***Obaba***; Ana Schulz eta Cristóbal Fernándezen ***Mudar la piel*** (Azala aldatu), Julio Medemen ***Vacas*** (Behiak), Telmo Esnalen ***Dantza***, Álex de la Iglesiaren ***El Día de la Bestia*** (Piztiaren eguna), Jon Garañano eta Jose Mari Goenagaren ***Loreak***, Víctor Ericeren ***El espíritu de la colmena*** (Erlauntzaren espiritua) eta Enrique Urbizuren ***No habrá paz para los malvados*** (Bakerik ez da izango maltzurrentzaat). Programazioan izango dira, halaber, urteko film labur onenak hautatzen dituen **Kimuak** programako filmatako batzuk: Maddi Barberen ***592 metroz goiti***, Josu Martinezen ***Ama***, Mari Elorzaren ***Ancora Lucciole*** (Oraindik ipurtargiak), Miguel Angel Jimenezen ***Kafenio Kastello***, Sara Fantovaren ***No me despertéis*** (Ez nazazue esnatu) eta Pello Gutierrezen ***Zain***.

Azpimarragarria da, halaber, **Great Basque Women Animators** (euskal emakume animaziogile handiak) ekitaldia; horretan proiektatuko dira Euskal Herriko animazio emakume zuzendari ospetsuenetakoak diren Begoña Vicario eta Izibene Oñederraren ibilbidean eragina izan duten animazio film laburrak. Proiekzioaren ondoren zuzendari horiekin iritziak partekatzeko aukera izango da.

**Gonbidatuak.** Bi zuzendari horietaz gain, **Begoña Vicario** eta **Izibene Oñederra**, "Basque Spring: Focus on Basque Country" atzerabegirakoan izango da **Ana Schulz** zinemagilea. Hirurak hitzaldietan jardun eta maisu eskolak emango dituzte Eskoziako arteen gune nagusienetan: Edinburgh College of Art eta Glasgowko Centre of Contemporary Arts. Bestalde, ***592 metroz goiti*** film laburraren zuzendari den **Maddi Barber** Leeds-eko Hyde Park Picture House aretoan eta Manchester-eko Cervantes Institutuan izango da.

Atzerabegirakoak sail ludikoago bat ere izango du; Edinburgon, euskal gastronomiari keinu eginez, **Pintxos & Films** ekitaldia egingo da, LeithLate erakundearekin lankidetzan. LeithLate, Leith-en, eskoziar hiriburuko barrutietako batean kokatua, arte bisualak sustatzen dituen erakundea da.




Edinburgo /

**apirilak 25 de abril >**
**maiatzak 23 de mayo**

**+info: www.cinemaattic.com**

En 2018 fueron varios los filmes que se proyectaron en las diferentes salas de Escocia. En esta edición, se proyectarán nueve largometrajes, entre ellos, ***Tasio*** y ***Obaba*** de Montxo Armendariz; ***Mudar la piel***, de Ana Schulz y Cristóbal Fernández; ***Vacas***, de Julio Medem; ***Dantza***, de Telmo Esnal, ***El Día de la Bestia***, de Álex de la Iglesia, ***Loreak*** (Flores), de Jon Garañano y Jose Mari Goenaga, ***El espíritu de la colmena***, de Víctor Erice y ***No habrá paz para los malvados***, de Enrique Urbizu. La programación incluye, asimismo, varios de los cortometrajes de **Kimuak**, el programa que selecciona los mejores cortometrajes vascos del año: ***592 metroz goiti*** (592 metros), de Maddi Barber; ***Ama*** (Madre), de Josu Martinez; ***Ancora Lucciole*** (Aún luciérnagas), Maria Elorza; ***Kafenio Kastello***, Miguel Angel Jimenez; ***No me despertéis***, de Sara Fantova, y ***Zain*** (Esperando), de Pello Gutierrez.

También destaca el evento **Great Basque Women Animators** (grandes creadoras de animación del País Vasco) donde se proyectarán cortos de animación que han influenciado las carreras de dos de las más reconocidas directoras de animación del País Vasco: Begoña Vicario e Izibene Oñederra, con las que se podrá intercambiar opiniones una vez terminada la proyección.

**Invitados.** Además de estas dos directoras, **Begoña Vicario** e **Izibene Oñederra**, la retrospectiva "Basque Spring: Focus on Basque Country" contará también con la presencia de la cineasta **Ana Schulz**. Las tres participarán en conferencias e impartirán master classes en algunos de los principales centros dedicados a las artes: Edinburgh College of Art y Centre of Contemporary Arts de Glasgow. También se contará con la presencia de **Maddi Barber**, directora del corto *592 metroz goiti* (592 metros), en Hyde Park Picture House de Leeds y en el Instituto Cervantes de Manchester.

La retrospectiva contará también con un apartado más lúdico donde se hará un guiño a la gastronomía vasca a través del evento **"Pintxos & Films"** en Edimburgo, en colaboración con LeithLate, una organización de artes visuales con sede en el Leith, uno de los distritos de la capital escocesa.

BASQUE SPRING: FOCUS ON BASQUE COUNTRY

# Egitaraua / Programa

## Apirilak 25 de abril

**19:45**

**IREKIERA** / APERTURA
**Kimuak: Basque Short Film Night**
*CCA Glasgow (Glasgow)*

## Apirilak 26 de abril

**19:30**

**IREKIERA** / APERTURA
***Dantza*** **+ Traditional Basque Dance**
*(Traditional Dance Forum Scotland-ekin lankidetzan / En colaboración con Traditional dance Forum Scotland)*
*Lauriston Hall (Edinburgo)*

## Apirilak 28 de abril

**15:00 - 18:00**

**Leith Pintxos & Films Crawl**
*(LeithLate eta Kimuak-ekin lankidetzan / En colaboración con LeithLate y Kimuak)*
*Victoria Bar, Leith Depot, Bar Brig (Edinburgo)*

**19:00**

***El día de la Bestia***
*LeithLate/CinemaAttic afterparty*
*Henderson Hall (Edinburgo)*

## Maiatzak 1 de mayo

**17:30**

**Basque Classics:** ***Tasio***
*Glasgow Film Theatre (Glasgow)*

## Maiatzak 2 de mayo

**10:30**

**Director's Talk: Collective Animation (Begoña Vicario + Izibene Oñederra)**
*(ECA Animation-ekin lankidetzan / En colaboración con ECA Animation)*
*Edinburgh College of Art, Hunter Lecture Theater (Edinburgo)*

**10:30**

**Documentary Masterclass: Ana Schulz at SDI**
*(Scottish Documentary Institute-ekin lankidetzan / En colaboración con Scottish Documentary Institute)*
*Edinburgh College of Art, Hunter Lecture Theater (Edinburgh)*

**17:45**

***Mudar la Piel***
*Solasaldia zuzendariarekin / Coloquio con con la directora)*
*Glasgow Film Theatre (Glasgow)*

## Maiatzak 4 de mayo

**12:30**

**Basque Women Animators: animated shorts**
*Solasaldia Begoña Vicario + Izibene Oñederra coloquio*
*CCA Glasgow (Glasgow)*

**18:00**

**CCA Glasgow, Culinary Docs: Bihar dok 13 (afaria+emanaldia / cena + proyección)**
*(Slow Food Glasgow-ekin lankidetzan / En colaboración con Slow Food Glasgow)*
*The Project Café (Glasgow)*

## Maiatzak 5 de mayo

**17:00**

**Basque Classics:** ***Vacas***
*Glasgow Film Theatre (Glasgow)*

## Maiatzak 7 de mayo

**15:00 - 18:00**

**Basque Double Bill:** ***Loreak*** **+** ***El Espíritu de la Colmena***
*University of Strachclyde, McCance Building (Glasgow)*

## Maiatzak 8 de mayo

**15:00 - 18:00**

**Basque Double Bill:** ***Obaba*** **+** ***No habrá Paz para los Malvados***
*University of Glasgow (Glasgow)*

## Maiatzak 17 de mayo

**19:30**

**Kimuak: Basque Short Films**
*Stour Space (London)*

## Maiatzak 22 de mayo

**18:00**

**Kimuak: Basque Short Films**
*Solasaldia Maddi Barber zuzendariarekin / Coloquio con la directora Maddi Barber*
*Instituto Cervantes (Manchester)*

## Maiatzak 23 de mayo

**18:00**

**Kimuak: Basque Short Films**
*Solasaldia Maddi Barber zuzendariarekin / Coloquio con la directora Maddi Barber*
*Hyde Park Picture House (Leeds)*

# EDINBURGH INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Edinburgo /

**ekainak 19 - 30 de junio**

1947. urtean sortu zen Edinburgh International Film Festival (EIFF), eta, egun, urtero etenik gabe egin den zinema jaialdirik zaharrena da. Mundu-mailako dokumentalen jaialdi gisa hasi bazen ere, gaur egun orotariko filmak aurkezten dituen jaialdia da EIFF. Erresuma Batuko hainbat zinema talentu arrakastatsuren harrobia izan da jaialdia, tartean Bill Forsyth, Danny Boyle edota Stephen Frears zuzendariena.

Jaialdiaren aurtengo edizioan aurkeztuko dira Koldo Almandozen ***Oreina*** pelikula eta 2018an Kimuak programan hautatutako ***Espedizio handia*** film laburra, Iban del Camporena. Proiekzioez gain, zine industriako profesionalen arteko topaketa bat egingo da. Era berean, Donostia Zinemaldian ere Eskozia helburu izango duen industria topaketa egingo da Glocal programaren baitan.

Edinburgh International Film Festival (EIFF), creado en 1947 y celebrado desde entonces todos los años de forma ininterrumpida, es hoy día el festival continuo más longevo del mundo. Comenzó siendo un festival de cine documental, pero hoy en día presenta también cine de ficción en su programación. El EIFF ha sido la cantera para muchos cineastas británicos de éxito, tales como los directores Bill Forsyth, Danny Boyle y Stephen Frears.

En la edición de este año se presentan ***Oreina*** (Ciervo), de Koldo Almandoz, y ***Espedizio handia*** (La gran expedición), corto de Iban Campo seleccionado en la edición de 2018 de Kimuak. Al margen de las proyecciones, dentro del programa destinado a la industria, se llevará a cabo un encuentro dirigido a profesionales. Asimismo, el programa Glocal del Festival de San Sebastián pondrá el foco en la industria cinematográfica escocesa.

**Ekainak 24 de junio**

**20:50**

**Oreina**

*Odeon Cinema 4*

**Ekainak 26 de junio**

**18:05**

**Oreina**

*Vue Omni Centre Screen 11*

**18:05**

**Espedizio handia**

*Filmhouse 2*




*Argazkia/Foto: Edinburgh International Film Festival*

# EDINBURGH FESTIVAL FRINGE



Argazkia/Foto: Krego-Martín Danza

Mundu-mailan, kaleko ikuskizunen jaialdirik handiena da Edinburgoko Fringe jaialdia. 1947. urtean sortu zen, Edinburgh International Festival jaialdiarekin batera. Azken hau, II. Mundu Gerraren amaieran Eskoziak Europan zuen presentzia kulturaren bidez azpimarratzeko asmoz sortu zen, eta bertara, lehen edizioan bertan, Sail Nagusian izena emanda ez zeuden zortzi antzerki konpainiak ikuskizunak eskaini zituzten Edinburgoko kaleetan. Jaialdi ofizialaren ***bazterrean*** parte hartu zutenez, hitz hori (ingelesez, ***fringe***) hartu zuten jaialdi alternatibo hori izendatzeko. Orduztik, Edinburgh International Festival eta Edinburgh Festival Fringe paraleloan burutzen dira udaran. Urtero, abuztuko hiru astetan zehar, Eskoziako hiriburua askotariko arte adierazpenen bidezko ikuskizunen bilgune bihurtzen da: iaz, 317 antzeztokietan 3548 ikuskizun izan ziren, guztira berrogeita hamar milatik gora emanaldi. Antzerkia, dantza, zirkoa, kabareta, haur eta familientzako ikuskizunak, musikalak, opera, poesia mintzatua, erakusketak,... Fringe jaialdiaren aniztasunak ez du mugarik eta nazioarte mailako izen handienak euren ibilbidearen hastapenetan dauden artistekin nahasten dira bertan.

Aurtengoan, euskal dantza tradizionalak eta sorkuntza eszeniko garaikideak euren tokia izango dute Fringe jaialdian: batetik, bere erroak euskal zein eskoziar dantza tradizionaletan dituen kaleko ikuskizuna estreinatuko da; eta, bestetik, Krego-Martín Danza, Proyecto Colectivo HQPC eta Akira Yoshida Dance Base - National Centre for Dance zentroko agertokian izango dira, eta Tio Teronen Semeak, berriz, Edinburgoko kaleetan barrena ariko dira. Azkenik, 2Theatre konpainia Assembly Rooms antzokian izango da bere obra aurkezten.

Edinburgh Festival Fringe es el mayor festival de arte callejero del mundo que se celebra durante el mes de agosto en las calles de la capital escocesa. Fue creado en 1947 junto con el Edinburgh International Festival. Éste último surgió tras la II Guerra Mundial para dar a conocer la cultura escocesa en el marco europeo y, en la primera edición, ocho compañías de teatro no inscritas en el programa oficial realizaron actuaciones en las calles de Edimburgo. A consecuencia de haber actuado “al margen” del festival, esa expresión (en inglés, *fringe*) fue la elegida para acuñar al festival alternativo que, desde entonces, se realiza en paralelo al Edinburgh International Festival todos los años. Cada año, a lo largo de tres semanas de agosto, en la capital de Escocia confluyen incontables modos de expresión artística que se traducen en miles de espectáculos o manifestaciones de todo tipo: en 2018, 317 escenarios acogieron 3548 espectáculos, que sumaron en total más de cincuenta mil representaciones. Teatro, danza, circo, cabaret, espectáculos para público infantil y familiar, musicales, ópera, poesía hablada, exposiciones... La diversidad del Fringe no tiene límites y en él nombres destacados del panorama internacional se mezclan con artistas que empiezan su carrera.

Este año, la danza tradicional y la creación escénica contemporánea vascas tendrán su espacio en este enorme escaparate abierto al mundo: por una parte, en el Fringe se estrenará un espectáculo de calle que, creado en el contexto del programa Scotland Goes Basque, hunde sus raíces en los bailes tradicionales vascos y escoceses; y, por otra, la compañía Krego-Martín Danza, Proyecto Colectivo HQPC y Akira Yoshida actuarán sobre el escenario del Dance Base - National Centre for Dance. Por otra parte, Tio Teronen Semeak. trasladará su espectáculo a las calles de la ciudad. Por último, la compañía 2Theatre presentará su obra en el teatro Assembly Rooms.

Edinburgo /

**abuztuak 2-26 de agosto**

**+info: www.edfringe.com**



# ATLANTIK 1050 :

## EUSKAL HERRIKO ETA ESKOZIAKO DANTZA TRADIZIONALEN KALEKO IKUSKIZUNA

## ESPECTÁCULO DE CALLE DE BAILES TRADICIONALES VASCOS Y ESCOCESES

Edinburgh Festival Fringe (Edinburgo) /

**abuztuak 9 de agosto**

Atlantikaldia (Errenteria) /

**irailak 22 de septiembre**

Musika eta dantza herrikoia oso errotuta daude Eskoziako eta euskal Herriko kulturetan. Bi herriek, dantza tradizionalaren errepertorio aberats eta original baten jabe izatearen harrotasuna partekatzen dute. Harrotasun hori ikuskizun bihurtuz, Etxepare Euskal Institutuak, Dance Base (Eskoziako Dantza Zentro Nazionala) eta Errenteriako Atlantikaldia jaialdiak Atlantik 1050 kaleko ikuskizuna sustatu dute. Jen Wren koregrafoa da proiektuaren zuzendari artistikoa, Amy Geddes musikaria arduratuko da musika zuzendaritzaz eta Alain Maya dantzari eta koreografoa euskal dantza eta musika aholkulari izango da, Ereintza Dantza Taldearen izenean. Ikuskizunak itsasoa du bi kulturen arteko lokailu eta kostaldetik kostalderako joan-etorriko bidaia gisa otu da: abuztuan Edinburgoko Fringe jaialdian estreinatuko da eta irailean, berriz, Errenteriako Atlantikaldira etorriko da; itsasoz, 1050 itsas milia dira bi leku horien arteko distantzia eta hori jaso nahi izan da Atlantik 1050 izenburuan.

Atlantik 1050 nazioarteko proiektuaren sorburuan dago Fringe jaialdiaren zuzendari artistiko Morag Deyes-ek euskal dantza tradizionala Edinburgoko jaialdi ospetsuan aurkeztearen aldeko apostuan, hori erakusteko kaleko ikuskizun bat programatu nahi izan baitzuen. Ikerkuntzaren, uztarketaren eta elkarlanaren emaitza izango den egitasmoan jardungo duen lan taldea osatu aldera, Dance Base-k, zuzendari artistikoa eta musikala hautatzeaz gain, dantzari jardungo duten eskoziar dantza tradizionaletan trebatutako gazteak aukeratu ditu. Euskal partaideei dagokionez, Atlantikaldiak Ereintza Taldeari egin zion enkargua eta horrek Alain Mayari eman dio aholkulari jardun eta euskal dantzariak hautatzeko ardura: Ereintzako hainbat kide eta Euskal Herriko beste zenbait eskualdetako taldetako dantzariak izango dira. Ikuskizuna musikaz jantziko duten bi musikariak ere euskaldunak izango dira.

La música y el baile tradicional están muy arraigados tanto en la sociedad vasca como en la escocesa. Las dos comunidades comparten el orgullo de poseer un repertorio rico y original de danza tradicional. Con el objetivo de convertir ese orgullo en espectáculo, Etxepare Euskal Institutua, Dance Base (Centro Nacional de Danza de Escocia) y el festival Atlantikaldia de Errenteria han promovido el espectáculo de calle Atlantik 1050. La coreógrafa Jen Wren es la directora artística del proyecto, la músico Amy Geddes se encargará de la dirección musical y el bailarín y coreógrafo Alain Maya es asesor en lo relativo a danza y música vasca, en nombre de Ereintza Dantza Taldea. Con el mar como nexo de unión, esta iniciativa se plantea como un viaje de ida y vuelta, de costa a costa: el espectáculo se estrenará en agosto en el festival Fringe de Edimburgo y recalará en septiembre en el Atlantikaldia de Errenteria; por mar, la distancia entre ambas localidades es de 1050 millas y es precisamente a esa distancia a la que hace referencia Atlantik 1050.

En el origen del proyecto internacional Atlantik 1050 está el hecho de que fue el propio director artístico del Fringe, Morag Deyes, quien apostó por incluir bailes tradicionales vascos en el festival; para mostrarlos, quiso incluir un espectáculo de calle en su programación. Para crear el grupo de trabajo que llevará a cabo este espectáculo, que será resultado de un trabajo de investigación y colaboración, Dance Base, además de seleccionar a las directoras artística y musical, ha seleccionado a un grupo de jóvenes escoceses versados en danzas tradicionales. En lo que se refiere a los participantes vascos, el festival Atlantikaldia ha contado con Ereintza Dantza Taldea de Errenteria, que ha asignado a su miembro Alain Maya la tarea de asesorar a las directoras en el ámbito de los bailes y la música tradicionales vascos; seleccionará, asimismo, a los/as bailarines/as vascos/as: serán miembros de Ereintza, así como de otros grupos vascos de baile.

# EDINBURGH FESTIVAL FRINGE



Argazkia/Foto: Krego-Martín Danza

## KREGO-MARTÍN DANZA - (NON) COMFORT ZONE

Edinburgo /
**abuztuak 8, 9, 10, 11 de agosto**
Dance Base



Maria Martinek eta Judith Ruizek 2011. urtean sortutako Krego-Martín Danza konpainiak "dantzaren humanizazioa" islatzea du helburu bere ikuskizunetan. Teknika sentsorial ezberdinak erabiliz, dantza-adierazpenaren eta publikoaren arteko konexioa indartzea bilatzen dute. *(Non) Comfort Zone* ikuskizunean, pertsona orok aztertua dela sentitzean bizitzen duen deserosotasun sentsazioa eta egoerak eragindako portaera-erreakzioak islatu nahi izan dituzte. Mugimenduaren eta dantzaren bitartez, sentsazio hori biziarazi nahi dio ikus-entzulegoari, bizitza pribatuaren agerpen publikoaren gaia ukituz. SAREA Euskadiko Antzoki Sareak gomendatutako ikuskizuna da, eta 2016an Düsseldorfeko International Tanzmesse dantza jaialdian erakusteko hautatua izan zen.

La compañía Krego-Martín Danza, compuesta por María Martín y Judith Ruiz en 2011, tiene como objetivo mostrar en sus actuaciones la "humanización del baile". Utilizando diversas técnicas sensoriales, buscan fortalecer la conexión entre la expresión corporal y el público. En la actuación *(Non) Comfort Zone*, han querido reflejar la sensación de incomodidad que se vive cuando uno se siente observado, y las reacciones corporales que parten de esa sensación. Mediante el movimiento y la danza, pretenden hacer sentir lo mismo al público, aludiendo al tema de hacer pública la vida privada de las personas. Es un espectáculo recomendado por la Red de Teatros de Euskadi SAREA, y fue seleccionada para participar en el festival de baile International Tanzmesse de Düsseldorf.

# PROYECTO COLECTIVO HQPC - HABRÁ QUE PONERSE CACHAS



Edinburgo /

**abuztuak 8, 9, 10, 11 de agosto**

Dance Base

Maylis Arrabit dantzari baionarrak gida artistiko gisa egindako lehen lan koreografikoa da *Habrá Que Ponerse Cachas* (HQPC) ikuskizuna. Xabier Madina Manterola eta Ebi Soria Corón dantzariekin batera, modu kolaboratzailean sortu eta garatutako proiektua da, partaide bakoitzak bere gogoetak gehituz osatu duena. Lanaren ideia Bob Dylanen kantu batetik hasi zen Arrabiten buruan, eta ospitale bateko itxarongelan dauden bi gizonen arteko harremana erakusten du, ordu erdi luzeko pieza batean. Inozentzia eta absurdoa erabiliz, mundu inklusibo baten isla izan nahi du proiektuak, mugitzeko modu ezberdinen arteko konexioa erabiliz. HQPC ekimena Gipuzkoako Dantzaguneak bermatua izan da, eta kolektiboak erresidentzia teknikoa egin du Donostiako Gasteszena espazioan.

*Habrá que ponerse Cachas* (HQPC) es el primer trabajo coreográfico realizado como guía artística de la bailarina de Bayona Maylis Arrabit. Es un proyecto realizado de manera colaborativa junto con los bailarines Xabier Madina Manterola y Ebi Soria Corón, donde cada participante ha aportado sus reflexiones. La idea parte de una canción de Bob Dylan en la mente de Arrabit, y nos muestra la relación de dos personas en la sala de espera de un hospital, en una pieza de más de media hora. Mediante el uso de la inocencia y lo absurdo, el proyecto quiere ser reflejo de un mundo inclusivo, utilizando la conexión de diversas formas de movimiento. HQPC ha sido apoyado por Gipuzkoako Dantzagunea, y el colectivo ha realizado una residencia técnica en la sala Gazteszena de Donostia / San Sebastián.



# EDINBURGH FESTIVAL FRINGE



Argazkia/Foto: Akira Yoshida

## AKIRA YOSHIDA – HOME

Edinburgo /

**abuztuak 8, 9, 10, 11 de agosto**

Dance Base

Akira Yoshidak, ama donostiarra eta aita japoniarra duen dantzari nafarrak, sortutako eta dantzatutako pieza dugu *Home*. Artista hau ***break dance***tik dantza garaikidera hurbiltzen hasi zen bera hazten ikusi zuen Iruñean. Austriako Salzburgo hirian beka bati esker dantza ikasketak egin ostean, egun, bi dantza estiloak uztartzen dituzten ikuskizun bitxi bezain paregabeak eskaintzen ditu dantzari gazteak. Hala ere, berak dioen moduan, "dantzaren lengoaiak ez ditu izenak kontuan hartzen, eta puntu batera iritsita, oholtzan gertatzen dena soilik ikus-entzulegoarekin partekatutako esperientzia bat da, izena duen estilo zehatz bat izan beharrean". Berak oso-osorik sortutako ikuskizunek, normalean, bizitzan izan dituen esperientzietatik edaten dute. *Home* ikuskizunarekin, etxera itzuli nahi duen norbaiten noraeza islatu nahi izan du, nostalgiaz beteriko pieza batean.

La pieza *Home* es enteramente creada y representada por el propio Akira Yoshida, pamplonés de madre donostiarra y padre japonés. Este artista comenzó su andadura en el break dance, y ya comenzó a derivar hacia el baile contemporáneo en la Pamplona que lo vio crecer. Tras realizar sus estudios de baile en Salzburgo, hoy día el joven bailarín fusiona los dos estilos creando una expresión única. De todos modos, tal y como él dice, "el baile no conoce de lenguajes, y llegados a un punto, lo que pasa en el escenario es solamente una experiencia compartida con el público, no necesitada de etiquetas que determinen su estilo". Los espectáculos, creados enteramente por él mismo, parten normalmente de vivencias que él mismo ha experimentado. Con *Home*, Yoshida ha querido reflejar, en una pieza llena de nostalgia, la deriva de alguien que quiere regresar a su casa y no sabe cómo.

## TIO TERONEN SEMEAK – FRESHCOOL

Tio Teronen Semeak konpainiak hainbat gauza uztartzen ditu: partaideen aldetik, dantzariak eta musikariak; diziplinen aldetik, dantza, musika eta umorea; estiloen aldetik, euskal kantu tradizionala eta pop kantu arrakastatsuak. Euren ikuskizunetan, oholtzan jende andana bildurik, festa eta algara nabarmena izan ohi da. Edinburgoko kaleetan aurkeztuko duten *FreshCool* antzezlanak orotariko egoera barregarri eta absurdoak bilduko ditu; tartean, Raphaelen kantu bat aurresku moduan dantzatu eta guzti! Piezak barre-algaraka utziko ditu bertako ikusleak.

Edinburgo /

**abuztuak 7, 8, 9, 10 de agosto**

Royal Mile Mercat Stage

La compañía Tio Teronen Semeak combina varias cosas: en lo que a participantes se refiere, bailarines y músicos; en cuanto a las disciplinas artísticas, música, danza y humor; en cuanto a los estilos, música tradicional vasca y éxitos mundiales del pop. La fiesta y el jolgorio son elementos indiscutibles en sus actuaciones, en las que se juntan una multitud de personas en el escenario. En la pieza *FreshCool* que presentarán en las calles de Edimburgo no faltarán situaciones graciosas y absurdas; ¡Hasta bailarán un aurresku con una canción de Raphael! El espectáculo dejará a los espectadores llorando de la risa.



Argazkia/Foto: Tio Teronen Semeak

# 2THEATRE - INTERBEING: STORIES FROM A CURRENT WAR



2theatre 2011n sortu zuten Txema Perezek eta Svetlana Bibak, eta diziplinarteko ikuskizunak eskaintzen ditu. Elkarrekin ezkontzen dira bertan antzerki fisikoa, clown antzerkia, txotxongiloak, mimoa eta dantza, betiere nazioak elkarrengana hurbildu eta mugak ezabatzeko helburuaz, gizaki guztiak elkartzen gaituzten gaien bidez. Aurtengo Fringe Festivalean, *Interbeing: stories from a current war* aurkeztuko dute, euskal, ingeles eta ukraniar artistak uztartzen dituen ikuskizuna, egungo Ukrainia ekialdeko gatazkako istorio eta irudi errealetan oinarritutako gidoi bat garatuz. Antzerki fisikoa ikus dezakegu, objektuen manipulazioa, zuzeneko musika, akrobaziak, mimoa, dantza, mozorro-lana eta ahozko mintzairarekin uztartzen diren irudiak, bertan nahastuz euskara, gaztelania, ingelesa, ukraniera eta errusiera. Ekintza eta irudiaren bidez, emaitza guztiz ulergarria da edozein hizkuntzatako ikusleentzat.

Edinburgo /

**Abuztuak 1 - 25 de agosto**

Assembly Rooms
(Ball Room)

2theatre, fundada en 2011 por Txema Perez y Svetlana Biba, produce espectáculos multidisciplinares combinando teatro físico, clown, títeres, mimo y danza, siempre con el objetivo de acercar naciones y borrar fronteras a través de temas que unen a todo ser humano. En esta edición del Fringe Festival presentan *Interbeing: stories from a current war*, un espectáculo que combina artistas vascos, ingleses y ucranianos, desarrollando un guion basado en historias e imágenes reales del actual conflicto en el Este de Ucrania. Se puede ver teatro físico, manipulación de objetos, música en directo, acrobacias, mimo, danza, trabajo de mascara e imágenes que se completan con un lenguaje verbal que mezcla el euskera, castellano, inglés, ucraniano y ruso. La acción y la imagen hacen que el resultado sea totalmente comprensible para audiencias de cualquier idioma.



*Photo: Ju Ostroushko*

# EDINBURGH INTERNATIONAL BOOK FESTIVAL

1983. urtean sortua, egun munduko literatura jaialdi garrantzitsuenetarikoa da Edinburgh International Book Festival. 1000 egiletik gora joaten dira bertara urtero: idazleak, poetak, zientzialariak, filosofoak, kirolariak, ilustratzaileak, komikigileak, historialariak, musikariak, biografoak, ekonomialariak... Heldu eta haurrentzako 900 orotariko jarduera baino gehiago antolatzen dituzte, eta idazle eta irakurleek ideiak elkarbanatzeko espazio irekiak eskaintzen dituzte, Eskoziako hiriburuaren erdialdean jaialdirako espreski eraikitzen duten gunean.

Aurtengoan, **euskal literatura** bertara gonbidatua izango da: **abuztuaren 10etik 18ra** hainbat euskal idazle izango dira Sail Ofizialean, eta jaialdiko Unbound atalean, euskal literaturarekin lotutako diziplina anitzeko emanaldiak egingo dira, non, adibidez, bertsolaritzari buruzko saio bat egingo den. Edinburgon izango dira **Iban Zaldua, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez, Danele Sarriugarte, Joseba Etxegoien eta Eñaut Elorrieta.**.

Horrez gain, 2019an zehar, Edinburgh International Book Festival jaialdiak lankidetza ildoak jorratuko ditu Euskal Herriko hainbat literatura hitzorduekin, hala nola, Bilboko Azkuna Zentrokoak antolatzen duen Gutun Zuria jaialdiarekin, Durangoko Azokarekin eta Donostiako Literaktum jaialdiarekin.

Creado en 1983, el Edinburgh International Book Festival es hoy día uno de los festivales literarios más destacados del mundo. Más de 1000 autores acuden a él todos los años: escritores, poetas, científicos, filósofos, deportistas, ilustradores, dibujantes de cómics, historiadores, músicos, biógrafos, economistas... Se organizan más de 900 eventos de diversa índole dirigidos tanto al público adulto como al infantil, y el festival ofrece un espacio abierto en medio de la ciudad donde autores y público pueden intercambiar ideas y opiniones.

La **literatura vasca** será invitada a la edición de este año y estará presente en el festival **del 10 al 18 de agosto**. Durante esos días, los/las varios/as escritores/as vascos/as formarán parte del programa oficial, y en la sección Unbound se realizarán representaciones multidisciplinares donde mezclarán literatura con otras prácticas; por ejemplo, el bertsolarismo. Viajarán a Edimburgo **Iban Zaldua, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez, Danele Sarriugarte, Joseba Etxegoien y Eñaut Elorrieta**.

Además, en 2019, el Edinburgh International Book Festival trabajará conjuntamente con eventos literarios del País Vasco para futuros intercambios; entre otros, con Gutun Zuria, organizado por Azkuna Zentroa en Bilbao, la Durangoko Azoka o el Literaktum de San Sebastián.

Edinburgo /
**abuztuak 10 - 26 de agosto**



*Argazkia/Foto: Edinburgh International Book Festival*

**+info: www.edbookfest.co.uk**




Argazkia/Foto: DSS2016EU

# CHEJOV VS. SHAKESPEARE

Chejov vs. Shakespeare izeneko ekimena Donostia 2016 Kultur Hiriburutzak emandako uztaren fruituetako bat da, 2016tik haratago ere jarraipena izan duena. Iniziatibaren helburua lurralde eta hizkuntza ezberdinetako bi idazlek gutunak elkarbanatzea da, horietan Europak egun bizi dituen erronka eta gatazken inguruan dituzten iritzi eta ideiak partekatzeko.

**Iban Zaldua** euskal idazleak eta **James Robertson** eskoziarrak seina gutun idatzi eta elkartrukatuko dituzte; horietan euskal zein eskoziar errealitateen alor ezberdinen inguruan euren ikuspuntua agertuko dute. James Robertsonek eskozieraz idazten ditu gutunak eta Iban Zalduak, aldiz, euskaraz; baina ingelesa darabilte zubi-hizkuntza gisa. Urtarrilean hasi ziren gutunak idazten eta aurreikusita dute ekainaren erdialderako amaituko dutela gutunak elkarri trukatzen. Dagoeneko bina partekatu dituzte eta nork bere hizkuntzaren kontuez, horien egoera soziolinguistikoaz eta kulturaz jardun dute horietan.

Egitasmo honen inguruko mahai inguru bana izango da Edinburgh International Book Festival delakoan eta Donostiako Literaktum jaialdiaren baitan. Hortaz gain, gutun-bilduma liburu batean bilduta argitaratuko da.

Aurrekoetan gutunak elkartrukatu dituzten idazleak dira, besteak beste, Bernardo Atxaga eta Bashkim Shehu idazle albaniarra, Eider Rodriguez eta Belen Gopegui idazle espainia, edota Harkaitz Cano eta Dubravka Ugresic idazle kroaziarra.

Chejov vs. Shakespeare es uno de los proyectos derivados de la Capitalidad Cultural Europea Donostia / San Sebastián 2016 que ha tenido continuidad a posteriori. El objetivo de esta iniciativa es el intercambio de cartas entre dos autores de territorios y lenguas de producción diferentes, en las que expresan ideas y opiniones sobre diversos retos y conflictos que vive la Europa actual.

En esta edición, el escritor vasco **Iban Zaldua** y el escocés **James Robertson** escribirán seis cartas cada uno que, a medida, que vayan redactando, irán intercambiado; en ellas plasmarán su punto de vista sobre diversos aspectos de las realidades vasca y escocesa. James Robertson las redactará en escocés e Iban Zaldua en euskera, si bien la lengua-puente de este proyecto es el inglés. Iniciaron la redacción de las cartas en enero y prevén completar la correspondencia a mediados de junio; hasta ahora han intercambiado dos cartas cada uno. En ellas, han abordado temas tales como aspectos relativos a su lengua materna, la situación sociolingüística de la misma o la cultura de sus respectivos países.

Posteriormente, esa correspondencia se recogerá en un libro y se realizarán sendas mesas redondas en torno a este proyecto en el marco del Edinburgh International Book Festival y en el festival Literaktum de San Sebastián.

En intercambios precedentes han participado, entre otros, Bernardo Atxaga y el escritor albano Bashkim Shehu, Eider Rodríguez y la escritora española Belén Gopegui, o Harkaitz Cano y la escritora croata Dubravka Ugresic.

## Egitaraua / Programa

### Abuztuak 10 de agosto

**12:30**
**Chejov Vs Shakespeare**
**IBAN ZALDUA & JAMES ROBERTSON**
*Garden Theatre*

**15:30**
**HARKAITZ CANO & JUMOKE VERISSIMO**
*Writer's Retreat*

### Abuztuak 11 de agosto

**12:15**
**MIREN AGUR MEABE & ZINZI CLEMMONS**
*Baillie Gifford Corner Theatre*

**18:00**
**Wine and Words**
**HARKAITZ CANO**
(**Danele Sarriugarte** itzultzailea/traductora; **Joseba Etxegoien**, musikaria/músico).
*The Spiegeltent*

**21:00**
**Unbound: Scotland Goes Bertsolaritza!**
(Bertsolaritza, musika/música)
**What is Bertsolaritza?**
Ikus-entzunezkoa / audiovisual
**UXUE ALBERDI,** bertsolaria
(**Danele Sarriugarte,** itzultzailea/traductora)
**EÑAUT ELORRIETA,** abeslaria/cantante
*The Spiegeltent*

### Abuztuak 12 de agosto

**18:00**
**Throwing Voices**
**UXUE ALBERDI, CIARA MACLAVERTY, RACHEL NEWTON**
*The Spiegeltent*

### Abuztuak 17 de agosto

**19:00**
**BERNARDO ATXAGA & MARGARET JULL COSTA**
*Baillie Gifford Corner Theatre*

### Abuztuak 18 de agosto

**10:00**
**Ten at Ten**
**EIDER RODRIGUEZ**
*Writer's Retreat*

**14:00**
**Translation Workshop**
**EIDER RODRIGUEZ & MARGARET JULL COSTA**
*Kimpton Charlotte Square Hotel*

# EUROPA TRANSIT



Donostia 2016 Kultur Hiriburutzatik ateratako Europa Transit enbaxada ibiltaria, XX. mendeko gerra edo gatazken lekuko izan diren edo oraindik badiren Europako hamar hiritara joan zen. Elkarbizitzarako trantsizioaren kultura sustatzea helburu, Europa Transitek honako hiri hauek bisitatu zituen: Ceuta, Belfast, Dresden, Wroclaw, Sarajevo, Mosku, Pafos, Plovdiv, Pristina eta Tesalonika. Enbaxadak 2016ko urtarrilean ekin zion bideari, autobusez. Bereziki ekipatutako autobus hori lantoki bihurtuta, leku bakoitzean dokumental bat egin zuen Xuban Intxausti zinemagileak gidatutako taldeak, gatazkaren kazetaritza-kontaketa eta gatazkak utzitako kultur erreferentzien begirada konbinatzen zituena. Lanok ETBn emititu ziren Europako Kultur Hiriburutzaren urtean zehar, eta nazioarteko hainbat zinema jaialditan hautatuak ere izan dira. Urrian dokumental horietako hiru aurkeztuko dira Glasgow eta Edinburgon: *Street Dancers, Common Borders* eta *Sounds of Resilience* dokumentalak proiektatuko dira eta hainbat jarduera izango dira horien protagonista diren **Maria Ibarretxe** (Sra. Polaroiska), **Mursego** eta **Amets Arzallus**en eskutik.

Europa Transit es una embajada itinerante formada en el contexto de la Capitalidad Cultural Europea Donostia / San Sebastián 2016, que en su día viajó a 10 ciudades europeas que fueron o continúan siendo zonas de conflicto o guerra. En aras de fomentar la cultura de la transición hacia la convivencia, Europa Transit visitó estas ciudades: Ceuta, Belfast, Dresde, Wroclaw, Sarajevo, Moscú, Páfos, Plovdiv, Pristina y Tesalónica. La embajada comenzó su andadura en enero del 2016, en un autobús especialmente equipado como lugar de trabajo. El equipo liderado por Xuban Intxausti filmó un documental en cada ciudad, combinando el relato periodístico de guerra y el rastro que dichos conflictos dejan en las expresiones culturales posteriores. Dichos trabajos audiovisuales se emitieron en ETB, la televisión autonómica vasca, durante el año de la capitalidad, y también fueron seleccionados para varios festivales internacionales. En octubre se proyectarán en Edimburgo y Glasgow tres de esos documentales, *Street Dancers, Common Borders* y *Sounds of Resilience*, y se llevarán a cabo varias actividades paralelas de la mano de **Maria Ibarretxe** (Sra. Polaroiska), **Mursego** y **Amets Arzallus**, protagonistas de los mismos.



Argazkia/Foto: DSS2016EU

# PLOVDIV

# KALEKO DANTZARIAK BAILARINES CALLEJEROS

**Urriak 11 de octubre**

**19:30**

**LUR AWAY**
(performance)

**Sra. Polaroiska**, sorkuntza eta zuzendaritza / creación y dirección

**Alaitz Arenzana, Maria Ibarretxe, Natxo Montero, Myriam Petralanda,** antzezleak / intérpretes

*Lauriston hall (Edinburgo)*

**Urriak 12 de octubre**

**16:00**

**KALEKO DANTZARIAK** / BAILARINES CALLEJEROS
(dokumentala / documental)

**Maria Ibarretxe (Sra. Polaroiska),** aurkezpena / presentación

*Scottish Documentary Institute (Edinburgo)*

Sra. Polaroiska talde artistikoak (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) dantza tailer bat antolatu du Plovdiven (Bulgarian). Bertan, ijito-etniako zenbait gaztek hartu dute parte eta, elkarrekin, dantza-ekitaldi bat aurkeztuko dute hiriko erdigunean. Parte hartu duten gazteen eta antolatzaileen artean garatutako harremanari esker, Bulgariako ijito-etniaren egoera latza ezagutuko dugu. Dantza, artea eta kultura, aurreiritzien, gizarte-bazterketaren edo ezberdina izatearen beldurraren aurkako antidotoak direla erakusten digu “Kaleko dantzariak” dokumentalak.

El dúo artístico Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana y María Ibarretxe) ha organizado un taller artístico en Plovdiv (Bulgaria). En él participan varias personas de etnia gitana y, todas juntas, presentarán una actuación en el centro de la ciudad. Gracias a la relación formada entre jóvenes participantes y organizadoras, conoceremos la difícil situación que vive la etnia gitana en Bulgaria. El documental Kaleko dantzariak nos enseña que el baile, el arte y la cultura son el antídoto contra los prejuicios, la discriminación social y el miedo a lo diferente.

# EUROPA TRANSIT

## PAFOS

## MUGAMINAK FRONTERAS COMPARTIDAS



Argazkia/Foto: DSS2016EU

**Urriak 17 de octubre**

**19:00**

**MUGAMINAK** / FRONTERAS COMPARTIDAS
(dokumentala / documental)

**Amets Arzallus,** hitzaldi-mintegia / charla-seminario

*St Cecilia's Hall (Edinburgo)*

1974tik, Europan zutik jarraitzen duen azken harresiak Zipreko irla zatitzen du. Mugak bi komunitatetan banatzen du irla: greko-zipretarra eta turko-zipretarra. Amets Arzallus bertsolariak Ziprera bidaiatuko du gatazka honen ondorioak ezagutzeko; besteak beste, hainbat familia etxerik gabe eta milaka hildako eta desagertu utzi zituen. Bertan ezagutzen dituen musikari eta poetak lagun, herrialdearen egungo egoera ezagutuko du. Aldi berean, Ametsek Zipreko mugaren gatazka bere bizipenekin alderatuko du: Euskal Herria banatzen duen muga, bere bizitza markatu duen zauria baita. Amets Arzallusen begien eta bertsoen bitartez, gaur egungo Europako bi mugaren ondorioak ezagutuko ditugu.

La única y última muralla que sigue en pie en Europa parte la isla de Chipre en dos, desde el año 1974. Dicha frontera separa la isla en dos comunidades: la greco-chipriota y la turco-chipriota. El bertsolari Amets Arzallus viajará a Chipre para conocer las consecuencias de este conflicto que, entre otras cosas, dejó a muchas familias sin casa y miles de muertos y desaparecidos. Acompañado de los músicos y poetas de Pafos, conocerá la situación actual del país. A su vez, Arzallus comparará el conflicto fronterizo de Chipre con sus propias vivencias; pues la frontera que separa al País Vasco (la parte francesa y la parte española) es una herida que ha marcado su vida. El documental nos transmite el dolor de estas dos fronteras mediante la mirada y los bertsos de Amets Arzallus.

# SARAJEVO

# ERRESILIENTZIA SOINUAK
# SONIDOS DE RESILIENCIA

**Urriak 20 de octubre**
**19:30**
**ERRESILIENTZIA SOINUAK** / SONIDOS DE RESILIENCIA
(dokumentala / documental)
**Mursego (Maite Arroitajauregi)**
*CCA Glasgow (Glasgow)*



*Argazkia/Foto: DSS2016EU*

Maite Arroitajauregi "Mursego" euskal artista Sarajevora eta Gorazdera doa musika-pieza bat sortzera: Albinoniren adagioa du abiapuntu, Vedran Smailovic-ek ("Sarajevoko txelo-jotzaileak") frankotiratzaileen tiroen artean jo zuena, ogia lortzeko ilaran zeudenean erail zituzten 22 zibilen omenez. Mursegok gerraren ondorioak eta Bosnia-Herzegovinako egungo egoera ezagutu ditu bertako herritarren eskutik. Emakume borrokalarien, pentsalarien, gerlari ohien, ikasleen eta musikarien lekukotzak jaso ditu, eta horiek dira Sarajevon amaieran egingo duen kontzerturako inspirazioa, soinuen bidez. Traumak gainditzeko gaitasunari eta musikaren ahalmenari buruzko dokumentala dugu hau.

La artista Maite Arroitajauregi, "Mursego", viaja a Sarajevo con el fin de componer una pieza musical: el punto de partida es el adagio de Albinoni que, precisamente, tocó el artista Vedran Smailovic ("El chelista de Sarajevo") entre tiros de francotiradores, en homenaje a los 22 civiles asesinados mientras esperaban en la cola para conseguir el pan. Mursego conocerá las consecuencias de la guerra de los Balcanes y, en concreto, la situación actual en Bosnia-Herzegovina de la mano de la ciudadanía de Sarajevo. Para ello, recoge testimonios de mujeres luchadoras, pensadoras, excombatientes, estudiantes y músicos, y estas le servirán de inspiración para el concierto que ofrecerá en Sarajevo al final de la cinta. Este documental nos habla de la capacidad de superar traumas y del valor de la música para ello.

# KONGRESUA: MUGARIK GABEKO ALA MUGATUTAKO ESPARRUA? HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK EREMU DIGITALEAN

Etxepare Euskal Institutuak eta Edinburgoko Unibertsitateak antolatuta, nazioarteko kongresu bat egingo da Edinburgoko Unibertsitatean urriaren 16 eta 17an, ikerlarien eta hizkuntza gutxituetako komunikabideetan lan egiten duten profesionalen artean ezagutza partekatu eta kolaborazioa sustatzeko. Ingelesez izango da kongresua.

Kongresuaren helburua da hizkuntza gutxituetako hedabideen inguruan eztabaida akademikoa eta profesionala sustatzea. Izan ere, 80ko hamarkada hasieran, Kataluniako, Hego Euskal Herriko eta Galeseko telebisten sorrerak Europako aditu ugari bultzatu zituen hizkuntza gutxituetako hedabideak aztertzera. Besteak beste, funtsezko kontzeptuak eta kasu azterketa garrantzitsuak. 1992an, arlo horretan agintari eta erakunde publikoen ardura azpimarratu zuen Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak. Azken bi hamarkadetan, digitalizazioaren eta Interneten eraginez, komunikazio sistema globala garatu da. Horrekin batera, hizkuntza gutxituetako medioen aukerak eta erronkak zaildu egin dira. Aldaketa horiek aurrean izan arren, eztabaida txikia egon da hedabideen eta eremu digitalaren arteko harremanaz.

Organizado por Etxepare Euskal Institutua y la Universidad de Edimburgo, los días 16 y 17 de octubre se va a celebrar un congreso internacional en la propia Universidad de Edimburgo. El objetivo de esta iniciativa es compartir conocimientos y fomentar la colaboración entre profesionales que trabajan en la investigación o en medios de comunicación de idiomas minoritarios. El congreso será en inglés.

A principios de los 80, el surgimiento de televisiones en Cataluña, País Vasco Sur o Gales impulsó a numerosos expertos a investigar los medios de comunicación que usan idiomas minoritarios. Destaca, entre otros, que en 1992 la Carta Europea de las Lenguas Minoritarias o Regionales subrayó la responsabilidad que tienen los gobiernos y organismos públicos sobre los conceptos básicos y la examinación de los casos importantes en esta materia. Junto a la digitalización e Internet, se ha desarrollado un sistema de comunicación global en las últimas dos décadas. Como consecuencia, los retos y oportunidades para los medios de comunicación de lenguas minorizadas se han vuelto más difíciles. A pesar de la presencia de dichos cambios, el debate sobre la relación entre los medios en lenguas minorizadas y el entorno digital ha sido muy escaso.



Edinburgo /
**urriak 16 - 17 de octubre**

# CONGRESO: ¿ESPACIO LIMITADO O ILIMITADO? LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN LENGUAS MINORIZADAS EN EL CONTEXTO DIGITAL



Gaian adituak diren unibertsitateko lagunak eta sektoreko profesionalak bilduko dira kongresuan, munduko kasu ezberdinak aztertzeko eta alderatzeko. Hitz bitan, ezagutza partekatu eta elkarrengandik ikasi nahi da. Besteak beste, landuko diren gaiak dira: komunikazio eta kultura politikak; hedabideen ekonomia eta eremu digitala; telebistak eta Interneteko bideo plataforma berriak; audientzia, genero eta eduki azterketak; programazio estrategiak eta edukien kontratazioa; produkzio baldintzak eta distribuzio aukerak; edukien komertzializazioa; hedabideak-hezkuntza eta hizkuntza erabilera; lurraldetasuna, hizkuntza eta nortasuna; eta hedabideak eta genero ikuspegia. Kongresuak saio berezia izango du: hizkuntza gutxituetako hedabideen egungo egoeraz eztabaidatzeko mahaingurua, hain zuzen ere.

Bertan hizlari ariko dira **Rob Dunbar** (Edinburgoko Unibertsitatea), **Josu Amezaga** (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU), **Elin Haf Gruffydd Jones** (Mercator Media), **Alan Esslemont** (TGA4 Irlandako telebistako zuzendari nagusia) eta **Itziar Azpeitia**, (ETBko proiektu berezien arloburua).

Kongresuaren batzorde zientifikoa osatzen dutenak dira **Miren Manias-Muñoz**, Edinburgoko Unibertsitatea-Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV/EHU); **Aitor Zuberogoitia**, Mondragon Unibertsitatetik; **Estibaliz Amorrortu**, Deustuko Unibertsitatetik; **Helen Kelly-Holmes**, Limerick-eko Unibertsitatetik; **Tom Moring**, Helsinkiko Unibertsitatetik; eta **Tarlach McGonagle**, Amsterdameko Unibertsitatetik.

Antolakuntza batzordeko kide dira **Miren Manias-Muñoz**, Edinburgoko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari, eta **Garbiñe Iztueta**, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Etxepare Euskal Institutuaren ordezkari.

En el congreso, miembros de la universidad expertos en dicho tema y profesionales del sector estudiarán y compararán diferentes casos. Entre otros temas, se debatirá sobre políticas de comunicación y cultura; economía de los medios de comunicación y el entorno digital; televisiones y las nuevas plataformas de vídeo en Internet; estudios de audiencia, genero y contenido; estrategias de programación y la contratación de contenidos; condiciones de producción y las opciones de distribución; la comercialización de contenidos; los medios de comunicación-educación y el uso del idioma; territorialidad, idioma e identidad y los medios de comunicación y la perspectiva de género. El congreso contará con una sesión especial: una mesa redonda para debatir sobre la situación actual de los medios de comunicación en lenguas minorizadas.

Intervendrán como ponentes, entre otros, **Rob Dunbar** (Universidad de Edimburgo), **Josu Amezaga** (Universidad del País Vasco, UPV/EHU), **Elin Haf Gruffydd Jones** (Mercator Media), **Alan Esslemont** (director principal del canal de televisión irlandés TG4) e **Itziar Azpeitia** (responsable de proyectos especiales de ETB).

Forman parte del comité científico del congreso **Miren Manias-Muñoz**, de la Universidad de Edimburgo-Universidad del País Vasco (UPV/EHU); **Aitor Zuberogoitia**, de Mondragon Unibertsitatea; **Estibaliz Amorrortu**, de la Universidad de Deusto; **Helen Kelly-Holmes**, de la Universidad de Limerick; **Tom Moring**, de la Universidad de Helsinki; y **Tarlach McGonagle**, de la Universidad de Ámsterdam.

La comisión de organización la componen **Miren Manias-Muñoz**, en representación de la Universidad de Edimburgo y de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), y **Garbiñe Iztueta**, en representación de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y de Etxepare Euskal Institutua.

KONGRESUA
CONGRESO

# Egitaraua / Programa

*The Informatics Forum (University of Edinburgh)*

## Urriak 16 de octubre

### 9:45

**Euskarazko hedabideak lau hamarkaden ondoren: begirada kritiko bat**
Los medios en euskera cuatro décadas después: una mirada crítica
***Josu Amezaga*** *(UPV/EHU)*

### 11:00

**KOMUNIKAZIOA ETA KULTURA POLITIKAK**
COMUNICACIÓN Y POLÍTICAS CULTURALES

**Eskozia eta Sardinia: hizkuntza politiken analisi konparatiboa**
Escocia y Cerdeña: un análisis comparativo de sus políticas lingüísticas
***Robert Beveridge, FRSA*** *(University of Sassari)*

**Komunikazioa hizkuntza indigenetan Ghanan: jasangarritasuna jomuga**
La comunicación en lenguas indígenas en Ghana: la búsqueda de la sostenibilidad
***Ufuoma Akpojivi*** *(University of the Witwatersrand)*

**Gutxiengoen hizkuntza-eskubideak eta hedabide publikoak Bosnia-Herzegovinan**
Derechos lingüísticos de las minorías y medios de comunicación públicos en Bosnia-Herzegovina
***Kristina Cendric*** *(SHARE Foundation)*

**… *eta kitto!* tokiko egunkarien irakurleak hamar urtetan zehar: paperezko tokiko egunkari baten sendotasunen eta erronken azterketa**
… *eta kitto!* lectores/as de diarios locales durante una década: estudio de caso sobre fortalezas y retos de un diario local en papel
***Enara Eizagirre*** *(Aztiker)*

### 14:00

**Ikusle kuotak handiagotzea ala hizkuntza salbatzea da jomuga? TG4 Ireland-en kasua**
¿Conquistar cuotas de pantalla o salvar la lengua? El caso de TG4 Ireland
***Alan Esslemont*** *(TG4)*

### 15:00

**HIZKUNTZAREN ERABILERA ETA NORTASUNA**
USO DE LA LENGUA E IDENTIDAD

***Dragoi Bola* euskal telebista publikoan: ikusleen hizkuntza-jarreran eta erabileran eragina**
*Bola de Dragón* en la televisión pública vasca: influencia en las actitudes y en el uso de la lengua de los/as telespectadores/as
***Beñat Muguruza, Garbiñe Bereziartua*** *(UPV/EHU)*

**Hedabideak euskaraz, paperetik Internetera: zenbat gara eta zer egiten dugu?**
Medios de comunicación en euskera: ¿cuántos somos y qué hacemos?
***Libe Mimenza*** *(Behategia)*

**Euskararen ezagutza eta erabilera eta ikus-entzunezko hedabideen kontsumoa Euskal Herriko unibertsitate-ikasleen artean**
Conocimiento y uso del euskera y consumo de medios de comunicación audiovisuales por parte de universitarios/as en el País Vasco
***Edorta Arana, Beatriz Narbaiza*** *(UPV/EHU)*

**Euskaldun gazte eta helduen komunitateak Twitter-en: euskararen egokitzapena XXI. mendeko komunikazio-moldeetara**
Comunidades de vascoparlantes jóvenes y adultos en Twitter: adaptación del euskera a las formas de comunicación del siglo XXI
***Joseba Fernandez de Landa, Rodrigo Agerri, Iñaki Alegria*** *(UPV/EHU)*

***Gu ere Euskaldunak gara, Boisekoak*: nortasunaren eraikuntzaren eta kulturen arteko egokitzapenaren inguruko ikuspegi bikoitza Boiseko euskaldunen komunitatearen bidez**
*También nosotros somos vascos/as, de Boise*: una doble perspectiva sobre la construcción de la identidad y la adaptación intercultural a través de la comunidad de Vascos/as en Boise.
***Jaione Diaz*** *(University of Maryland)*

**Raidió na Life-en 25 urte: irlandar hiztun komunitate baten garapen konplexua irratiaren bidez**
25 años de Raidió na Life: el complejo desarrollo de una comunidad de hablantes irlandesa a través de la radiodifusión
***John Walsh*** *(National University of Ireland),* ***Rosemary Day*** *(University of Limerick)*

**Diejen is iejl prikkelboar: audientzien diseinua eta nortasuna animazio filmak nederlanderara bikoizterakoan hizkuntza barneko aldaeren bidez**
Diejen is iejl prikkelboar: diseño de audiencias e identidad en el doblaje de películas de animación al holandés a través de variaciones intralingüísticas
***Christophe Declercq*** *(UCL, London's Global University)*

## Urriak 17 de octubre

### 9:00

**Ikus-entzunezko edukiak euskaraz: telebista kontuak aro digitalean**
Contenidos audiovisuales en euskera: cuestiones de la televisión en la era digital
***Itziar Azpeitia Iruretagoiena*** *(ETB)*

### 10:00

**PRODUKZIO BALDINTZAK, PROGRAMAZIO ESTRATEGIAK ETA DISTRIBUZIO AUKERAK (I)**
CONDICIONES DE PRODUCCIÓN, ESTRATEGIAS DE PROGRAMACIÓN Y OPCIONES DE DISTRIBUCIÓN (I)

**Kazetaritza digitalean jardutea afrikar hizkuntzatako egunkarietan: *Alaroye* eta *Isolezwe* egunkarien kasu-azterketak**
La práctica del periodismo digital en los periódicos en lenguas africanas: casos de estudio de los periódicos *Alaroye* y *Isolezwe*
***Abiodun Salawu*** *(North West University)*

**Kornubieraren aferari erantzunez: gure etorkizun digitalerako zerbitzu publirakoko hedabideak diseinatzen, datuek bultzatutakoak, ez linealak eta askotarikoak, bloke-katean oinarrituak**
Respondiendo a la cuestión del córnico: diseñando un medio de comunicación de servicio público no lineal, impulsado por datos, pluralista construido en una cadena de bloques para nuestro futuro digital
***Denzil Monk*** *(Falmouth University)*

### 13:00

**PRODUKZIO BALDINTZAK, PROGRAMAZIO ESTRATEGIAK ETA DISTRIBUZIO AUKERAK (II)**
CONDICIONES DE PRODUCCIÓN, ESTRATEGIAS DE PROGRAMACIÓN Y OPCIONES DE DISTRIBUCIÓN (II)

**To the Max: murgilketa bultzatzeko transmedia kontakizuna frisieraz. Nola eraiki gazteen xede-talde batekin epe luzerako harremana interakzioa erabiliz**
To the Max: narración transmedia como impulso a la inmersión en frisio. Cómo construir una relación duradera con una audiencia meta joven a través de la interacción
***Halbe-Piter Claus*** *(Omrop Fryslân)*, ***Bart Kingma*** *(Omrop Fryslân)*, ***Mirjam Vellinga*** *(Afûk)*, ***Fokke Jagersma*** *(Afûk)*

**Zinema jaialdiak Euskal Herrian: euskarazko filmen zirkulazioko aukerak eta mugak**
Festivales de cine en el País Vasco: oportunidades y limitaciones para la circulación de películas en euskera
***Aida Vallejo, Amaia Nerekan*** *(UPV/EHU)*

**Itzulpenaren erronkak hizkuntza aniztun filmetan: *Handia*ren kasua**
Los retos de la traducción en películas multilingües: el caso de *Handia*
***Elizabete Manterola, Ana Tamayo*** *(UPV/EHU)*

**Atzerriko fikzioa hizkuntza gutxituetan**
Ficción extranjera en lenguas minorizadas
***Urtzi Urrutikoetxea*** *(ikerlari independentea/investigador independiente)*

### 15:15

**Mahai-ingurua: Mugarik gabeko ala mugatutako esparrua? Hizkuntza gutxituetako hedabideak aro digitalean**
Mesa redonda: ¿Espacio limitado o ilimitado? Medios de comunicación en lenguas minorizadas en el contexto digital

***Alan Esslemont (TG4)***
moderatzailea/moderador

***Elin Haf-Jones*** *(The University of Wales Trinity Saint David)*
***Rob Dunbar*** *(University of Edinburgh)*
***Margaret Mary Murray*** *(BBC Alba)*

www.basqueculture.eus
The Gateway to Basque
Creativity and Culture

BASQUE.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

etxe
pare
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUE INSTITUTE

araba
foru aldundia
diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

2019ko urria / Octubre de 2019